

# Prentsa oharra

*Joxe Iriarte bertsopaper lehiaketa. Sarituak.*

Apirilaren 22an, Iortia kultur guneko areto nagusia ia beteta zegoela, egin zen Joxe Iriarte bertso paper lehiaketako sari banaketa. Ekitaldi bere ere baliatu zen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak antolatutako bertso paper lehiaketako Sakanako sariak banatzeko.

Kima Euskara Taldeak Nafarroako Bertsolarien Elkartearen laguntzaz antolatu duen lehiaketan 200dik gora parte-hartzaile izan ziren. Guztiak ere A eta B mailan. Izan ere gazteen eta helduen mailetan ez baita lanik aurkeztu. Lanak aztertu ondoren Nafarroako Bertsolari Elkarteko kideek osatutako epaimahaiak sariak horrela banatzea erabaki zuen:

## **Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan**

1. Nerea Lapuente.
2. Pello Zabalza.

## **Bigaren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan**

1. Garazi Astiz
2. Maitane Ondarra

Lehiaketako sari banaketa ekitaldia Oskar Estangak girotu zuen eta ondoren sarituek haien lanak merezi zuen ordaina, saria, jasotzeko eskenatokira igo ziren. Haien eta lehiaketan parte hartu zuten gainontzeko guztien lanak [www.altsasuneuskaraz.com](http://www.altsasuneuskaraz.com) web orrian daude irakurgai.

Altsasun, 2008 garagarrilaren 11n



[www.altsasukokima.com](http://www.altsasukokima.com)